

Mikel Zabalzarekiko Oroimena: Erantzunak eta konpromisoak nahi ditugu

Mikel Zabalza, Orbaiztarra, bizilekua Altzan zuena, eta Donostiako Tranbia konpainiako udal langilea zena, 1985eko azaroaren 26an, Idoia Aierbe bere bikotekidearekin, bere lehengusuarekin eta lagun batekin Goardia Zibilak burututako operazio batean atxilotua izan zen.

Polizia operazioaren osteko orduetan, Mikel Zabalzak, ustez, ihes egin zuela zabaldu zen. Hurrengo egunetan ez zen batere informazio ofizialik zabaldu eta, abenduaren 15ean, bere gorpua Bidasoa ibaian agertu zen.

Mikelen atxiloketa eta torturak jasan izana salatu zituzten senideek eta berarekin batera atxilotutakoek, eta bertsio ofiziala ukatu zuten.

Mikel Zabalzaren desagertuaren larritasunak eraginda, 1985eko abenduaren 6an, Donostiako Udal Batzarrak mozio bat onartu zuen *"Donostiako Tranbia Konpainiako langile eta Donostiako bizilaguna den Mikel Zabalza jauna non dagoen argitzeko ikerketan eta gertaeren argipenean laguntzeko konpromisoa hartuz, eta horretarako, kasua argitzeko irekita dauden diligentzietan herri ekimen gisa agertzeko konpromisoa hartuz, Donostiako Instrukzio Epaitegiko 1. Aretoran"*.

Donostiako Udal Batzarrak, 2002ko maiatzaren 28an, EUDELen mozio bat onartu zuen, ondokoa zehaztuz: *"eraildako pertsona bakoitzak eta, oro har, biolentzia pairatu dutenek merezi dituzte erakundeon eta herritarron oroitzua eta elkartasun aktiboak"*.

Donostiako Udal Batzarrak, 2016ko azaroaren 26an, ondoko mozioa onartu zuen: *"Donostiako bizilaguna eta Donostiako Tranbia Konpainiako langile zen Mikel Zabalza atxilotu zuteneko eta hilik agertu zeneko 30. Urteurrena den honetan, Donostiako Udalak bere konpromisoa berresten du, 1985eko abenduaren 6an Udalak onartutako mozioan jasotzen denaren haritik, bere heriotza eragin zuten gertaeren argipenean laguntzeko, eta Egia eta Justizia ezartzen, bere memoria sustatzen, biktima gisa onartua izan dadin eragiten eta Mikel Zabalzari eta bere senideei dagokien erreparazioa eskaintzen parte aktibo izateko, beste erakundeekin, dBuseko langileekin eta Herri Ekimenekin batera, dauden edota sortu beharko lirakeen Giza Eskubideetako eremuko organo egokietan parte hartuz"*.

Donostiako Udalak dei egiten die donostiarrei parte har dezaten dBuseko langileek eta mozio honen sustatzaile den Mikel Zabalza Gogoan Herri Ekimenak antolatutako oroimen eta elkartasun ekimenetan".

2016ko apirilaren 7an, Plataformak eskatuta, "Mikel Zabalza Gogoan Herri Ekimen"eko ordezkariak eta Mikel Zabalza eta Intxaurrondotik pasa ondoren kalte larriak pairatzen segitzen duen Idoia Aierberen senideak, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordean hartuak izan ziren. Bertan, eskaera zehatzen idatzi bat aurkeztu zuten.

2016ko maiatzaren 19an, Giza Eskubideen Batzordearen aldetik inolako berririk ez zela ikusita, "Mikel Zabalza Gogoan Herri Ekimena"k Batzordeari eginiko eskaerei erantzuna eskatuz, Donostiako Udal erregistroan idatzi bat sartu zuen.

Gaurko egunean, bileratik bi hilabetera, ez Herri Ekimenak ezta senideek ere, ez dute inolako erantzunik izan ez Giza Eskubideen Batzordearen aldetik, ezta Udaletxe beraren aldetik ere.

Beste behin – Udal zerbitzuen eskutik, Mikelen oroimenez egindako mural baten ezabaketa eta gero -, "Mikel Zabalza Gogoan Herri Ekimena"k egoera honen aurrean bere egonezina publikoki agertu nahi du. Donostiako Udalaren aldetik hartutako konpromisoen berrestea txalotu genuen bezala, gaur da eguna non, GGEE Batzordearen bileratik eta bi hilabetera, inolako erantzun idatzirik ez dela izan salatu behar dugula.

Donostiako Udalak Altzako bizilagunek egindako oroimen muralak ezabatzen segituko al du?, Mikel Zabalzarentzat Batzorde berezi bat sortuko al da?, Idoia Aierberentzat babes eta laguntza ekonomiko, juridiko edo psikologikoa izango al da?, Udal zerbitzu juridikoekin eta familiaren abokatuarekin batera, balizko ekimen judizial berriak aztertuko al dira?, Mikel eta bere lagunak oroimena non geratzen da?.. Hauek bezalako galderek Udalaren aldetik oraindik erantzun bat itxoiten dute.

Bakar batean laburbiltzen ditugu: Donostiako bizilaguna eta udal langilea zenaren inguruko egia, justizia eta oroimenaren bilaketan eragile aktibo izatearen konpromisoaren berrespena zertan geratuko da?